

## ARAUDIA

1. Parte hartzaileak. Lau modalitate (parentesi artean parte-hartzaile kopuru maximoa):
  - a. Helduak banaka (70 pertsona)
  - b. Helduak binaka (40 bikote)
  - c. Haurrak banaka (20 pertsona)
  - d. Haurrak binaka (15 bikote)
2. Igel kopurua: bi edo hiru (txinbotarrak, moskotarrak eta udala). Aldi berean hiru pertsonak jokatu dezakete.
3. Txandak: Jokalari/bikote bakoitzak 8 fitxako 5 jaurtiketa egingo ditu.
  - a. Helduak 3,5 metroko distantziatik
  - b. Haurrek 3 metroko distantziatik
4. Puntuaketa: igelaren ahotik gehienetan sartzen dituenak irabaziko du.
  - a. Berdinketarik egonez gero:
    - i. Helduen kasuan:
      1. 8 fitxako 3 jaurtialdi. Jarraituko balu...
      2. 8 fitxako 2 jaurtialdi. Eta jarraituko balu...
      3. 8 fitxako jaurtialdi bana
      4. Banan-banan bota norbaitek kale egin arte
    - ii. Haurren kasuan:
      1. 8 fitxako 5 jaurtialdi. Jarraituko balu...
      2. Gazteenak (bikoteen artean, adin batura txikiena daukan bikoteak) izango dira irabazle

Berdinketen kasuan, hasiera batean lehenengo jokatu duena izango da, eta holan jarraituko dute.

Faltarik egitekotan (distantzia laburragotik bota, lerroa zapaldu), hutsa izango da, kanpora joan izan balitz bezala kontatuko du.

5. Izen-ematea: Hau Pittu Haun Aste Nagusiko astelehen eta asteartean, 10:00-12:00 artean.